



HERRERA IKASTETXEA
Ederrena Bidea 21 - 20017 DONOSTIA
Teléf.943. 391577 - Fax 943.395249
E-mail 012188aa@hezkuntza.net

Donostia, 2002ko otsailaren 18a

Kaixo:

Telefonoz adostu genuen bezala, hemen doakizue, alde batetik gure eskolaren 50. urteurrena ospatzeko antolatu ditugun ekitaldi desberdinen berri eta bestetik, bere hastapenetatik gaur arte hainbat datu.

Ospakizunaren ekitaldien inguruan egin den egitarauan ikus daiteke lau hitzaldi izango direla otsaila eta martxoaren bitartean, zeinetara guraso eta jendea, orokorrean, gonbidatuta daude. Hitzaldi horietan gai ezberdinak jorratuko dira, umeen heziketari dagozkienak zein auzoaren historiarekin zerikusia dutenak.

Bestalde badaude beste mota bateko ekintzak ere, hemendik ikasturtea bukatu arte burutzen joango garenak, esaterako: *xake partida bizidunekin, argazkien erakusketa* Larratxoko Kultur Etxean, *Aldizkari bat* argitaratu, *bazkari bat*, non eskolarekin nolabaiteko harremana izan dutenak elkartuko dira.

Esan beharra dago ekintza hauek guztiak ikastetxeko irakasleen ekimena izan direla eta berauek gauzatzeko erakunde hauen lankidetzaz izan dugula. Gure eskerrak denei.

- Donostiako Berritzegunea
- Altzako Historia Mintegia
- Ikastetxeko Guraso Elkarteak.

Eskolaren historiaren gainean esan behar dugu lehenengo datuak 1946. urtekoak direla, orduan ipini baitzen lehenengo harria eraikitzeke gero "Romualdo de Toledo" izenaz ezagutuko zen eskola. Eskola honen lehen aktak 1952.ekoak dira; bertan neskatzoen eskola graduatua bezala agertzen da. 1972-73ko ikasturtera arte ez ziren elkartu nesken eta mutilen graduatuak. Geroxeago, 1980-81ean, gaur egungo izena hartu zuen.

Eskolak, betidanik, hobekuntzaren aldeko apustua egin du eta horren ondorioz, esan dezakegu, berrikuntzak edo aldaketak gehitzen joan direla batzuetan familien eta, orokorrean, gizartearen eskakizunei erantzuteke eta bestetan, irakasleen ekimenari; beti ere Ikastetxeko Hezkuntza Proiektua kontuan izanik. Puntu honetara iritsita aipatu behar dugu Herrera ikastetxeak egin duen eta egiten diharduen lana euskararen alde zein bertako ikasleek euskal kultura bizi dezaten. Izan ere, ikastetxeak "B" eta "D" hizkuntza ereduak eskaintzen ditu eta egun hauetan sinatu duen "Bai euskarari akordioa" denon adostasunarekin izan da.

Eta bukatzeko, beste arlo bat ezin duguna ahaztu irakasleen etengabeko formakuntza da.

Material hau baliogarria izango zaizuelakoan, gure eskerrik beroenak emanaz agurtzen zaituzte

HERRERA IKASTETXEKO 50.URTEURRENAREN BATZORDEAK